

**IKASTETXE GUZTIENDAKO JARDUERA KOMUNA. 2011KO MARTXOAN EGITEKOA.
 JARDUERA MOTA: IKERKETA LANA + IKASTETXEETAN AZALPENEA
 JARDUERAREN EDUKIA: AUTONOMIA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA**

IKASTETXEA	Julian Gayarre I.P., Erronkari D.B.H.I.
HERRIA	Erronkari

1. JARDUERAREN PROGRAMAZIOA

IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA	<p>HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen presentzia, maskulinoak kontsideratzen diren lanbideen inguruan lanketa egingo da. Plastika orduetan emakumezko margolari bat landuko da: Sonia Delaunay. Erakusketa bat prestatuko da bai eskolan eta eskolatik kanpo jartzeko asmoarekin. -Haur Hezkuntzan gorilaren lanketa probestuz, 3 emakume zientzialari landuko dira: Dian Fossey, Penny Paterson eta Jane Goodall. - Lanbideak eta bizitza proiektua lantzen. <i>Norak suhiltzaile izan nahi du</i> liburuaren laguntzaz tradizioz gizonezkoen lanbide bat landuko da gelan hezkidetzaz perspektibatik. -Lanbide ezberdinetako tresneria aztertuz, zer lanbideri dagokion aztertuko da eta generoak ez dituela lanbideak baldintzatzen landuko dute. -Etxeko lanen/zainketaren erantzunkidetasuna: ikasleak eskolako familia guztiei inkestak egiteaz arduratuko dira xede hauekin: familietan zainketaren ardura eta etxekolanak zeinek/zeintzuk dituzten, jasotako datuak aztertuko dituzte, hobekuntza lortzeko proposamen bat burutuko dute eta lortutako emaitzak familiei helaraziko dizkiete. -Pentsaren argazkien bitartez genero edo estereotipoen analisia: prentsaren argazkiak behatuz emakumearen presentzia eta lanbideak estereotipatuak dauden edo ez aztertuko dira. <p>BIGARREN HEZKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ikasgai bakoitzeko espezialista bere diziplinan emakume ezberdinek egindako ekarpenak klaseratuko ditu hilabete honetan zehar. Adibidez: plastikan Frida Kahlo, euskaran Maialen Lujanbio, Zientzietako ikasgaietan Hipatia, Josefa Molera, Lynn Margulis, Ada Byron Lovelace, Rosalind Franklin,... Ikasleek ikasgaien arabera lan diferenteak egin beharko dituzte. -<i>En tierra de hombres</i> pelikula ikusiko da eta jarduera desberdinen bidez landuko da. Batetik emakumearen sarrera tradizioz maskulinoa izan den lanbide batean aztertu, meatzaritza, eta enpleguaren zentralitatea landuko dira.
--	---

HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITITU NAHI DIREN IDEIAK	<p>Emakumeen presentzia txikia den lanbideetan ikustaraztea.</p> <p>Lanbideek generorik ez dutela lantzea.</p> <p>Historian emakumeek egindako ekarpenak ikustaraztea.</p>
PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...	<p>Ikasleak eta irakasleak.</p>
BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTUAK, ELKARRIZKETAK...	<p>Interneteko baliabideak, Arantxa Iturberen <i>Norak suhiltzailea izan nahi du</i>, ipuinak, inkesta, egunkariak, Niki Karoren <i>En tierra de hombres</i> pelikula eta <i>Rompiendo esquemas</i> gidaliburua, Stee-Eilas-eko materiala.</p>

2. JARDUERAREN LABURPENA

EGINDAKO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA (argazkiak, irudiak... ere sartu)	<p>HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plastika orduetan emakumezko margolari bat landu da: Sonia Delaunay. Erakusketa bat prestatu da eskolan eta eskolatik kanpo jartzeko asmoa dugu. -Haur Hezkuntzan gorilaren lanketa probestuz, 3 emakume zientzialari landu dira: Dian Fossey, Penny Paterson eta Jane Goodall. - Lanbideak eta bizitza proiektua lantzen. <i>Norak suhiltzaile izan nahi du</i> liburuaren laguntzaz tradizioz gizonetzkoen lanbide bat landu da gelan hezkidetzatza perspektibatik. -Lanbide ezberdinetako tresneria aztertuz, zer lanbideri dagokion aztertu da eta generoak ez dituela lanbideak baldintzatzen landu da. -Etxeko lanen/zainketaren erantzunkidetasuna: ikasleak eskolako familia guztiei inkestak egiteaz arduratuko dira xede hauekin: familietan zainketaren ardura eta etxekolanak zeinek/zeintzuk dituzten, jasotako datuak aztertuko dituzte, hobekuntza lortzeko proposamen bat burutuko dute eta lortutako emaitzak familiei helaraziko dizkiete. Jarduera hau oraindik bukatzeke dago. -Prentsaren argazkien bitartez genero edo estereotipoen analisia: prentsaren argazkiak behatuz emakumeek duen presentzia eta lanbideak estereotipatuak dauden edo ez aztertu dira.
--	---

	<p>BIGARREN HEZKUNTZA</p> <p>-Ikasgai bakoitzeko espezialista bere diziplinan emakume ezberdinek egindako ekarpenak klaseratu ditu hilabete honetan zehar. Adibidez: plastikan Frida Kahlo, euskaran Maialen Lujanbio, Zientzietako ikasgaietan Hipatia, Josefa Molera, Lynn Margulis, Ada Byron Lovelace, Rosalind Franklin, ... Ikasleek ikasgaien arabera lan diferenteak egin dituzte. Lan batzuk eskolako aldizkariaren hurrengo alean argitaratzeko asmoa daukagu.</p> <p>-<i>En tierra de hombres</i> pelikula landu da. Batetik emakumearen sarrera tradizioz maskulinoa izan den lanbide batean aztertu, meatzaritza, eta enpleguaren zentralitatea landuz.</p>
<p>BOST ESALDI EDO TITULAR, EMAITZAK ETA ONDORIOAK LABURTZEKO</p>	<p>Aztarna uzten duten emakumeak.</p>
	<p>Aukera guztiak denontzat.</p>
	<p>Denok dena: lana, kirola, errekonozimendua.</p>
	<p>Denontzat eskubide berdinak.</p>
<p>OHARRAK, IRITZIAK, BALORAZIOAK...</p>	<p>Generoa lanbide bat aukeratzeko oztopo ez dadila izan.</p>
	<p>Aurten martxoak 8 egun bakarreko ospakizuna izan ordez, saio bat baino gehiagotan lantzeko gaia izatera iritsi da. Orokorrean irakasleri osoaren inplikazioa egon da eta bakoitzak bere modura landu du egun hau bere ikasgelan.</p>